

Euskara indarberritzea, Mitxelenaren aburuz: noraino eta nola.

Mikel Zalbide
Donostia, 2015eko urriaren 30a

Aldun nagusi jauna, euskaltzainburua, Mitxelenaren familiako familiarteko agurgarriok, euskaltzain-lagunok eta areto eder honetara bildu zareten entzule adituok, egun on digula guztioi.

Errenteriako seme eta Euskal herriko plaza-gizon agiri, gogoetagile sakon eta solaskide zorrotz, euskaltzain oso eta unibertsitate-esparruko irakasle handi izanik dugu Koldo Mitxelena. Jaio zeneko mendeurrena izanik aurten, ugarituz doaz han-hemen bere gorazarretan antolaturiko ekitaldiak. Ez da gaurko hau lehenengoa, dakidalarik hirugarrena baizik, eta ez da seguruenik azkena izango. Esker ona erakustez gainera gorazarre egin nahi dio gaurkoan Euskaltzaindiak, ageriko bilkuraz eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin bat eginik, Koldo Mitxelenari. Berak utzi digun ondare aberatsa bi aldetatik arakatu nahi du Akademiak gorazarre honetan: horietariko lehena, hizkuntza-soziologiaren alorrekoa da. Mitxelenak esparru horretan izandako lekuaren eta pisuaren gaia jorratzea eskatu zait, eta atseginez hartu dut gonbita: ohore handia da niretzat, bertan parte hartu ahal izatea.

Koldoren beraren esaldi ezaguna eskaini dit puntu-jartzaileak, hitzaldia nola landu eta nola enfokatu zedarriztatzeko: "Gure herriak herri artean bere tokia behar duen bezala, hizkuntzak ere berea aurkitu behar du hizkuntza artean: handikeriazko menturarik gabe, iraupena eta hazkuntza segurtatzeko behar adinako tokia". Gatozen beraz, besterik gabe, harira. Mende luzea daramagu euskaldunok, euskara nola indarberritu aztertzen, eztabaidatzen eta, ahal izan denetan, diagnostiko bateratura iritsi eta elkar hartuz adostutako egitasmoak osatzen. Ez gara bakarrak, ahuldutako egoeran gaudenak. Milaka hiztun-elkarte dago mundu zabalean, arriskupeko hiztun-elkarteen sailean. Milaka horietarik gu baino egoera erosoagoan daude batzuk, beste zenbait gure parean-edo dabil eta, azkenik, gu baino okerrago daude ahuldutako hiztun-elkarte asko, oker ez banago gehienak. Begiak gora zein behera itzuliz badugu, gure eginbeharrari ekiterakoan, nora begiratu eta zer ikasi.

Ez gaitezen ordea engaina. Munduan bakarrak ez izan arren, eta auzokoen hainbat saio argigarri izanik ere, nekez konponduko ditugu gure gaitzak eta ajeak auzokoei zerk ondo funtzionatu dien eta zerk oker aztertze hutsarekin. Gure-gurea den hainbat ezaugarri bekokian iltzaturik daramagu euskaldunok, mintzajardunaren giza arteko moldaerari dagokionez. Bereizgarri horiek kontuan izango dituen sendabidea behar dugu, ez norbaitek noizpait eta nonbait asmatu botika unibertsal miresgarria. Gure etxerako egokia den, "hemen eta orain" aplika litekeen, irtenbide zuhurrena bilatu, zehaztu, adostu eta aplikatu beharrean gertatu gara horregatik, behin eta berriro, XX. mendean. Ez da lan erraza; atsegina ere ez. Eztabaida-iturri luze, sarritan mikatz eta ia beti unagarria bihurturik dugu, aspaldidanik, "euskara nola indarberritu behar da?" eta "bere gizarte-indarra zer neurritaraino jaso behar genuke?" galdera-parea.

Ahuldutako hizkuntza indarberritzeko saioen esparruan, linguistikan bezala, Mitxelena ez genuen hutsetik abiatu zale: "Mediterraneorik deskubritzen" ibiltzea ez zuen gogoko. Aurrekoek esandakoak eta, bereziki, han-hemengo adituek arrazoibide argiz adierazitakoak sakon aztertu ohi zituen, eta, probetxuko irizten zien neurrian, begitarte arraiz bereganatzen eta aplikatzen. Jakin badakigu, horrela, hizkuntza-soziologiaren XX. mendeko kontzeptu eta termino giltzarri asko ahal izanik iturritik beretik jaso ohi zituela. Besterenak zintzo eta sakon hausnartzeaz gainera, bere-berea duen kontzeptu-sare eta formulazio-mundu aberats-kiribila eraiki zigun errenteriarrek, hizkuntza-soziologiaren sailean. Horren alde eman litezkeen testigantza ugarietako bat aipatuko dugu hemen, gainerakoek lekuko: 1951ko bere *Euskal literaturaren etorkizuna*. Ebaluaziozko hausnarketa orekatua eta

aurrera begirako bideberritze-saioa eskaintzen da bertan. Asko dago hor aurreko bidegileetarik jaso: ikus, adibidez, kaletarren bizimoduak berezko dituen eginkizunetara egokituriko hizkuntza-eredu berria landu beharra: Lizardiren eragina, distira eta oihartzuna argi ageri da hor. Baina bere-berea da lana: jauzia dakar ordura arteko guztiekin alderatuz. Horrelakorik gehiago ere badu Koldok. Dotorezia handiko azalpen landuetan, orobat zorrotz emandako zenbait erantzunetan, ukaezina da ondorioa: bertako egoera berrira egokituriko paradigma trinko baten sortzaile dugu Mitxelena.

Gatozen beraz, aurrekari horiek hor ditugula, gaurkoan argitu nahi genituzkeen puntu nagusietara: a) euskara nora eraman nahi genuke, noraino jaso eta zabaldu nahi dugu?, eta b) nola indarberritu liteke euskara, begiz jotako maila horretara eraman ahal izateko? Ez dira galdera biak, bistan denez, zeharo bereiz eta elkarren arrotz. Badute batak zein besteak beregaintasunik aski, ordea, berariaz lantzeko. Banan-banan aztertuko ditugu hortaz, ondoko lerroetan.

I.- Euskara nora eraman nahi genuke?; noraino jaso nahi dugu?

Gaia ez da batere erraza, eta nekez bilatuko dugu errenteriarren baitan osabetezko formulazio teorikorik. Baditu, ordea, norabide horretan barrena doazen gogoeta-gaiak. Honela ikusten zuen Mitxelenak, 1975ean, gutxienezko langa-jartze horren kontua: “Baroja aipatuz gero, berez dator euskarak gure artean behar lukeen lekuaren auzia. Bizirik irauteko adinbat den leku opa diogu, gutxienez, baina hori aitortzea ez da aski, X-ek, aita Mokoroak eta nik ipiniko genituzkeen mugak ez baitira berdinak zabal-meharreen.”

Erraza ez izateak ez du esan nahi, jakina, eginkizun hori ezinezkoa denik erabat. Perspektiba teorikotik posible da berez, kontzeptu-argitze xume bati ekitea. Joshua A. Fishman-en 1967ko *Bilingualism with and without diglossia; Diglossia with and without bilingualism* famatua eskumutil harturik, hona lehen hurbilbide gisa egin litekeen mugarriztatze-lana. Kontzeptu-sare horren ildotik lau irtenbide eman litezke: a) diglosiarik eta elebitasunik gabeko etorkizuna: hots, guztiok euskaldun elebakar; b) diglosia bai baina elebitasunik ez: behinolako sistema sozial zorrotz hierarkizatuen konpartimentazio-moldea; c) diglosia bai eta elebitasuna ere bai: euskararen erabilera-esparrua, erdarena bezala, konpartimentazio soziofuntzional argiak zurkaiztua; eta d) diglosiarik ez, baina elebitasuna bai: ezinbestean elbakartasunera doan iraganbide hutsa. Zer dio horretaz Koldo Mitxelenak? Oro har gutxi zehazturiko gaia du hori. Ezin esan liteke, ordea, auzigai nagusi horretaz ezer esan gabea denik. Heldu izan dio gaiari han-hemen eta, halakorik egin duenean, erantzun argia eman izan dio bertako zenbait punturi. Gogoan hartzekoak dira, bereziki, honako hiru hauek:

- Euskara hutsezko (soil-soilik euskaldun elebakarrez osaturiko) Euskal herririk ez du posible ikusten begien bistako etorkizunean: “Opa diogun(a)z osorik jabetuko balitz ere (gure hizkuntza), ez lituzke erdarak erabat baztertuko” (Anaitasuna, 1975-I-15). Euskal herri elebakar hori (hemen eta orain) hobestekoa litzatekeenik ere ez du uste. Kanpoan uzten du beraz, *de facto*, goiko a) alternatiba.
- Goiko b) alternatiba (*diglosia bai, elebitasunik ez*) planteatu ere ez du egiten. Bistan da zergatik: mende joanetako egoera hierarkiko zurrunei dagokien moldaera-modu hori bideraezina da XXI. mende-hasierako Euskal herri honetan. Globalizazio-joerak daraman bidearen argitan, hurrengo hamarkadetan are bideraezinago izango da.

- Euskarari belaunez belauneko jarraipena bermatuko dion moldaera planteatzen du, bestalde, ezinbesteko baldintza gisa: goiko d) alternatiba ere bazterturik du hortaz, praktikan, hasieratik beretik.

Bistan da, beraz, Mitxelenaren azalpen horien argitan c) aukera bakarrik gelditzen dela eskueran: *diglosia bai, elebitasuna ere bai*. Ez behinolako diglosia molde zaharra, azken hatsa gure begien aurrean ematen ari dena. Bai, ordea, luze-zabaleko konpartimentazio sozio-funtzional (eta, agian, territorial) argiz euskarari ingurumen jakinetan bere lekua segurtatuko diona, euskaldun-jendearen belaunez belauneko jarraipena segurtatzeko gai izango dena eta, hortik abiatuz, bestelako zabalkunde-lanari oinarri-aukera argirik eskainiko diona.

Aukera hori ez da batere erraza, hainbat motiborengatik. “Benetan funtzionatuko duen” konpartimentazio-sistema berria zein ardatz kontzeptualen gainean eraiki behar da? Nola dakigu teoriarik baliozko den formulak praktikan ere funtzionatuko duela? Jendea (are euskaldungoa) prest izango al da konpartimentazio orok berekin dituen aukera-murritzapenak onartu eta aplikatzeko? Lege aldetik, lurralde-antolamenduaren alorrean, norbanako askatasun pribatuen eta orotarako eginbide publikoen arteko liskar-arrisku potentzialak direla medio, bideragarritasun ekonoteknikoaren aldetik eta hauteskundeetako iragazki-filtroaren eraginez konpartimentazio soziofuntzional eta fisiko-territorial horrek zer ondorio izango lituzkeen zehazten ez da orain arte inor saiatu. Kontuak badu, azkenik, osagarritzko eragozpena: *diglosia* hitzaren orain dela hiruzpalau hamarkadetako erabilera badaezpadaoak lau haizetara barreiatuak duen sasi-adiera peioratiboa. Zaila eta arras zaila izateak ez du esan nahi, ordea, alde batera uztekoa denik: oinarri-oinarritzko auzigai teoriko baten aurrean gaude hor. Honetan ere teoria ez da eguneroko bizimoduan ondorio zorrotzik gabeko denbora-pasa huts.

Mitxelenaren ustez, diglosia kontuarekin ez da nola-hala jardutea komeni: aho biko ezpata izana da digloisa, mende luzez, guretzat eta gurea bezalako beste hainbat hiztun-elkarterentzat. Hori dela medio, kalte nabarmenez gainera bizi-iraupenerako berme-oinarri sendorik izanik du bere baitan. Mitxelenaren hitzetan “menderen mende iraun du euskarak, diglosia hori gorabehera, eta iraun du jendearen ahoan, izkribuz ez bazen ere, hori izan delako lehen hizkuntza, beste guztien parean <<gurea>>, ez <<gureena>>” (MIG, X: 96). Gomendio argia egin zuen, horregatik, 1978an: “Diglosiaren purgatoriotik ihesi goazela ez gaitzela ghettoaren ifernuan eror. Hizkuntza integrakuntza beste ezein bezain beharrezkoa dugu” (Mitxelena, 1978: 25). Hots, bera ez zen euskal elebakartasun territorial hutsaren aldeko. Aitzitik, terminologia teknikoaren arabera “diglosia with bilingualism” delakoaren babesle agertu zen behin eta berriz. Aurrera begirako diglosia horrek ezin du diglosia zaharraren jarraipen huts izan, beste zerbait baizik: eskolan, administrazioan eta komunikabideetan, esate baterako, behar adinako sarbidea behar du, euskara indarberrituko bada eta belaunez belauneko jarraipen-katea gero eta osoago segurtaturik izango badugu. Euskara indarberritzeko orduan ezinbestekoak izanik ere eskola, administrazioa eta komunikabideak, Mitxelenarentzat ez dira konponbidearen muin eta lehentasun nagusi.

2.- Euskara nola indarberritu liteke, begiz jotako helburura eramateko?

Gauza bat da nora joan nahi genukeen argi (samar) izatea, eta beste bat hara iristeko zer egin behar genukeen ondo argitzea. Bigarren pauso horretarako aurrean zehatz bat dago, ordea, eginkizun: egungo egunean non gauden jakitea. “Atik Bra

nola joango gara?” galderak ez du B hori ongi zehaztea bakarrik eskatzen: *boutade* modukoa badirudi ere, “nora joan nahi dugu?” galderari erantzun egokia bilatzea bezain garrantzitsua da “non gaude?” galderari erantzun fidagarria ematea..

Gutxik eginik dute, esplizituki eta era sistematikoan, Mitxelenaaren pareko saiorik bigarren galdera horri erantzun betea eman nahirik. Analisi deskriptiboari zinetikoa erantsirik dio Koldok, erantzun-lanketa hartan: zer pauso eman ditugun azken hamarkadotan, eta pauso horiei esker gaur non gauden, sintetikoki biltzen jarduna dugu 1976-1978 epean. Kontu-errendatze hartan gogoan izanik ditu, gainera, hizkuntzaren giza arteko erabilera, hiztunen gaitasun-maila eta hizkuntzaren barne-osaera. Aparteko ekarpena eginik du beraz, horretan ere, Koldo Mitxelena. Gutxitan aitortu izan zaio hori.

Demagun beraz badakigula non gauden, eta nora joan nahi dugun. Nola joango gara, ordea? Zer pauso eman behar ditugu, orain gauden egoeratik bihar edo etzi iritsi nahi genukeen hartara ahalik arinen, kostu edo kalte txikienaz eta etekin hobereenez pasatzeko? Nagusiki sei erantzun eman izan zaizkio gure artean, XX. mendean, “euskara nola indarberritu liteke?” galderari. Hona seiak, lerroz lerro:

- Hizkuntza gizarte berri(tu)aren premietara egokitzea;
- Literatura ederraren eta xede arrunteko idazkien bidez hizkuntza landu, irakurle-jendea ugaritu eta euskalgintza osoa duintzea;
- euskaraz (egiten, irakurtzen, idazten) ez dakitenei hizkuntza erakustea: erdaldunak euskalduntzea eta etxetik euskaldun direnak alfabetatzea;
- Aginpidez edo bestelako indar-neurriz jendea euskara ikastera eta, are, eginbehar zenbaitetan euskaraz egitera bultzatzea;
- dezakeen jendeak bere etxeko, lagunarteko eta jendaurreko jarduna euskalduntzea, herritar xeheak jokaera-arau berri horretara bilduko diren itxaropenez; eta
- “Community fostering” edo eguneroko euskalgiro arrunta babestu eta suspertzea, benetako hiztun interaktiboan belaunetik belaunetik jarraipena segurtatuz lehenik eta hortik aurrerako zabalkunde-aukerak indartuz gero.

Kontu ezagunak dira horiek guztiak, eta pauso-neurri bakoitzaren deskribapen xeheak luzeegi joko luke gaurkoan. Lehenengo pausoaz (euskara gizarte berri(tu)aren premietara egokitzeko lanaz) ez dugu gainera ezer esango, Joseba Andoni Lakarra euskaltzain-lagunak argituko baitigu kontu hori. Gatozen, beraz, beste bostetara.

Bigarren puntuaz, berriz, badago zer esanik aski: puntu horretan zentratuz agertu zitzaigun Mitxelena 1951ko artikuluan, eta gai horren garrantzia argi azpimarratu zuen bizialdi osoan: Lizardi izan zuen, lehen eta gero, ereduaren eredu.

Hirugarren puntua, erdaldunak euskalduntzea eta, batez ere, etxetik euskaldun zirenak alfabetatzea, funtseko eginkizuntzat hartu ohi zuen Mitxelena: ikus 1968ko Arantzazuko bere txostenean, sarrerakoan preseski, zer dioen.

Laugarren puntua: aginpidez, edo bestelako indar-neurriz, jendea euskara ikastera eta zenbait eginbeharretan euskaraz egitera bultzatzea. Gutxi landu zuen gai hori Koldok eta, landu zuenean ere, uzkur agertu zen. Irlandako Hizkuntza Politikarako arduradunarekin (1965 inguruan) izandako harreman zuzenetik gomendio-ondorio hau-edo atera zuen antza: “inoiz aginte-ahalmena eskuratzera iristen bazarete euskaldunok, ez zaitezte hizkuntza kontuan herritar-jendea behartu zaleegi izan”.

Bosgarren puntuak, dezakeen jendearen jokabide proaktiboa planteatzen duenak, tradizio luzea du gure artean, Iruñeko Arantzadi legegizonaren garaitik hasita bederen. Bide beretik ibiliak dira, handik gutxira, Luis Eleizaldekoa, Pierre Broussain

hazpandar midikua eta beste zenbait euskaltzain, Krutwig tarteko dugularik. Vilfredo Pareto eta abarrek eliteez eraikitako teoriatik hain urrun ez dabilen emulaziozko hurbilbide horrek eragin ahula izanik du, gure ustez, Mitxelenaren baitan.

Seigarren pausoa gelditzen zaigu, azkenik: *Community fostering* edo ohiko euskalgiro arrunta babestu eta suspertzea, eguneroko hiztun interaktiboen belaunez belauneko jarraipena segurtatuz lehenik eta hortik aurrerako zabalkunde-aukerak indartuz gero. Seber Altube izanik dugu, askogatik, eginbehar horren zentraltasunaren lehenengo eta goreneko bozemaile: ikus 1932ko *La Vida del Euskera* eta 1936ko *Más sobre la vida del euskera* saiakera-artikulu zabalak. Deigarri da puntu honetan Mitxelenaren baitan ageri-edo dena. Oker ez bagaude hamarkada luzez ez du gai hori berariaz azpimarratu izan. Aldiz gero, aginte-marko autonomoa sortu eta handik berehala, goitik beherako plangintzaren aukera-bideak zabaltzen ari ziren unean, Altuberen ia 50 urte lehenagoko postulatueta bildu zen erabat. Euskalgintzaren lehentasun nagusia *community fostering* horretan finkatu zuen argi eta garbi. Elkarrizketa mamitsua egin zion *Muga* aldizkariak (Xabier Letek antza). Hona (Xabierren) galderak eta Koldoren erantzunak.

Galdera: Ante este hecho, y cara a una recuperación, es por lo que hablábamos de priorizar unos ámbitos de utilización. En este grave momento de emergencia cultural cuáles tendrían que ser, según tu criterio, los ámbitos fundamentales de utilización del euskera? Yo propondría, como urgentes, el ámbito administrativo, el de la enseñanza, el de los medios de comunicación social.

K. M.: Sigo pensando que, con todo, el antiguo ámbito familiar y el de la comunidad local sigue siendo esencial. Y sin eso, tenemos que convencernos de que no hay nada que hacer, de que todo lo demás es cuento. (..) creo que hay ciertos ámbitos, los tradicionales, de uso familiar, amistoso, coloquial, de comunidad local, que es necesario cultivar. Y que eso es fundamental.

Kontura gaitezen, lehen esan dudana gorabehera “sigo pensando” dioela hor Koldo Mitxelenak. Funtsezko iritzi hori ez zuen, antza, azken orduko bide-aldatze baten fruitu. Badirudi, aitzitik, oinarri-oinarriko puntu horretan aspaldi samarretik izanik dugula Mitxelena Seber Altuberen jarraitzaile.

Azken hitz:

- a) Gizaseme argi, giltzarri eta erabakigarri izanik da Mitxelena Euskal herrian, goren mailako linguista izateaz gainera, XX. mendearen bigarren erdian. Hala izanik da gure panorama soziokulturalean eta, are, instituzionalean;
- b) hizkuntza-soziologiaren esparruan aski gizon jantzia genuen: J. M. Sánchez-Carrión “Txepetx”-ekin batera, dudarik gabe, gure arteko gogoeta-lanetan teoria-sortzaile landuena. Horrezaz gainera, inor gutxik bezalako jakituria eta ibilbide akademiko-profesionala zuen: Parisen soziolinguistika-irakasle izanik da;
- c) formazio akademiko horrekin batean euskara-erdaren historia sozialari buruzko ezagutza sakona zuen. Oraingo hainbat egoera soziolinguistiko perspektiba kronologiko zabalagoan proiektatzeko aukera ematen zion ezagutza horrek;
- d) euskara-erdarek XX. mendeko gizarte-bizitzan ageri zituzten moldaera bihurri, desorekatu eta egonezinezkoen jakitun zen oso, bestalde.
- e) kanpotik eskuratutako jakituria teorikoa eta bertako jardunean lortutako ezagutza praktikoa oso era pertsonal eta berezian uztartu zituen Mitxelenak: 1951ko bere *Euskal literaturaren etorkizuna* ezin alboratuzko dokumentua da orain ere. Bestalde, *Muga* aldizkariak (Xabier Letek) egin zion elkarrizketan adierazitako lehentasun-eskema oso da argigarri. Seber Altube euskaltzainaren 1932ko eta 1935-36ko formulazio-bidearen aldeko agertu zen hor Mitxelena. Joshua A. Fishman-ek 1991ko bere *Reversing Language Shift* famatuan diogenarekin bat dator lehentasun-eskema hori.

Ez dago dudarik: euskaltzale suhar, langile nekaezin, konstelazio etnokultural txikien eta handien artean gizalegezko elkarbizitza eratzearen aldeko eta, ooren

buru, punta-puntako linguista izateaz gainera soziolinguistika alorrean goi-mailako aditu izan genuen Koldo Mitxelena. Gogoeta-lan aberatsa utzia digu eginik, iradokirik edo seinalaturik hizkuntza-soziologiaren alorrean aurrera egin nahi dugunoi: hori dugu bere altxor-ondarea, denboraren joanak nekez hutsalduko duena.

Bukatzer a noa: ez dut uste lekuz kanpokorik esango dudarik, datu-biltzen eta sailkatzen, kontzeptu-lantzen eta teoria-osatzen egindako ekarpen zabal eta sakonagatik, bai eta beste hainbat motiborengatik, Koldo Mitxelena euskaltzain guztiontzat eredu argi, gogoeta-iturri emankor eta jakinbide fidagarri dela baldin badiot.

Eskerrik asko guztioi.